

# B

BARREN

TOKIKOM



## Intsumisioak 25 urte



ELGOIBARKO UDALA



***Etxean, sailkatu zaborra gaika***

Eman izena edukiontzi marroia erabiltzeko:

943 741 050 edo [arreta@elgoibar.net](mailto:arreta@elgoibar.net)



A txu txi a mai ka



# Mauteiak

MARTXOAK 1, IARUNBATA

## 18:00 ATXUTXIKARAOKEA

0-12 urte bitarteko haurrei zuzenduta. Kalegoen plazan. OHARRA: eguraldi txarra eginez gero, Maalan izango da Atxutxikaraokea.

20:30 TXOKOLATADA. Maalako parkean.

## 23:00 KARAOKEA

16 urtetik gorakoentzat Maalako parkean

## 24:00 ERROMERIA.

FAN & GO taldearekin, Maalako parkean.

antolatzailea



babeslea



elgoibarko



laguntzailea





Janire Elordi

Kaixo, Maitanel!  
Prest daukazu aurten ere inauterietako transformazioa egiteko mozorroa?

Iritsi dira urteko egun koloretsuenak, laster dator udaberria eta asteburu honetan badatoz

eguneroko arauetatik, mugetatik eta monotoniatik irten eta aurpegiak, gorputzak, kaleak eta bazterrak fantasiaz, desioz eta ironiaz janzteko egun paregabeak.

Gu inauterien oso zale garela argi dute gure ingurukoek, nahiz eta aurten koadrilan animoz edo gogoz kaxkarxeago gabiltzala onartu beharko dugun. Energia gutxitxo jarri dugu mozorroen aukeraketan eta ez dakit ba emaitza deskafeinatua aterako ez ote zaigun. Baina festarik ez da faltako!



Maitane Mendikute

Kaixo, Jani!  
Ba bai! Konturatu orduko iritsi dira aurten ere karnabalak! Eta alfer samartuta ibili banaiz ere, ari zait ilusio pixkat pizten egun handirako.

Eta Malerrekako inauteriak gogora ekarri dituzun honetan, neuk ere oso oroitzapen onak ditut, bai! Hain gertu, baina hain desberdin, hain basati... Badirudi benetakoagoak-edo direla toki batzuetan besteetan baino, ezta? Autentikoagoak. Guk aspaldi honetan kaleak Internetez edo *txinoan* erositako traje merke eta distiratsuez betetzen ditugu, baina zer egingo diogu ba! Ez daukagu joaldunik, ezta Ziripotik ere!

### “Gure inauteriak Malerreka ingurukoekin alderatzean inbidia apur bat sentitzen dut”

Hala ere, gure inauteri ponpoxo hauek urtarrean Malerreka aldean izaten dituzten basatiagoekin alderatzean, inbidia apur bat sentitzen dut. Izan ere, zeinen indartsu joaldunak dunbotsean lurrari esnatzeko ordua iritsi dela adieraziz, eskuetan zaldi buztanak dantzan izpiritu txarrak uxatzeko lanetan; hartza erokeriak eginez, sexu gosearen irudia transmitituz... beldurra sentiarazteraino; herritarrek arropa zaharren atzean ezkutatu, anonimotasuna lortu eta barreneko jarrera primitiboei leku eginez; umorea pil-pilean alde guztietan...

Norbaiti eskerrak ematerik banu, ume ginenean eskolatik Doneztebeko aterpetxera irteera antolatuta ziguten irakasle talde hari eman nahi nizkioke. Sentimenduz beteta eta ikusitakoa non gorde jakin ezinik bueltatu nintzen orduko hartan, Zubieta-ltorenen joaldunei, hangoen mozorro zarpailei eta antzerki truskilei begira egon ostean.

Eta? Barruko piztiarengandik ala kanpoko ederrarengandik dago gertuago aurtengo zure mozorroa?

### “Noizbait pentsatzen jarri al zara egunero euren burua ezkutatu behar dutenez?”

Paganismoan sustraiturik omen dauden arren, oraindik bizirik jarraitzen dute inauteriek, eta ez da gutxi! Dena den, beti lotu izan ohi ditugu festarekin, eta asko jota torrada eta Garizumarekin, ez daukagu eguneroko bizitzan mozorrotzeko ohiturarik eta.

Baina noizbait pentsatzen jarri al zara inauteriak izan gabe egunero euren burua ezkutatu beharra duten pertsonen? Burka janzten duen neska musulmanaz, betondoko beltzunea estaltzeko betaurreko handiak jantzen dituen emakumeaz, kimioek eragindako ile-galera burusoila zapi edo peluka batez estaltzen duenaz...bankuak atrakatu ostean bere identitatea ezkutatu nahi duen lapurrez....

Eta zer esanik ez, egunero politikoz mozorrotzen diren lapurrez, polizia jantzen diren gaizkileez, infantaz maskaritzen diren esku-luzeez...

Euren burua egunero mozorrotu behar izaten dute batzuek! Eta horregatik konturatzen naiz polita dela geuk nahi dugulako urtean behin mozorrotzea! Baina ederra da aurpegia garbitu eta kalera garen bezala harro irten ahal izatea ere! Eder nahiz pizti izan!



**MEKANOSA**  
Errosario, 27  
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX



**CORDON VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Kanpo eta barneko estaldura  
Zolak estaltzea  
Latalekuak eguzki-aurerako, PVC  
Pintura orokorra

**GRUP  
MATEMATI**

San Roke, 7 beheko  
Pol. Olaso - Olaso kalea, 10 - 25 eta 26 modulak  
Tel. 943 749 570

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - Faxe: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)

**BARRE**Nek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzukizunik.

**KOORDINATZAILEAK** Ainhoa Andonegi, Ainara Argoitia **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi **INPRIMATEGIA** Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1139-1855

**Argitaratzailea:**

**ELGOIBARKO IZARRA** 50 ANIVERSARIO  
**KULTUR ELKARTEA**

**Laguntzaileak:**



ELGOIBARKO UDALA


**elgoibar**  
biZi-bizirik



MENDAKORO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

## ■ GUTUNAK



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Ondo ari gara!

Iñaki Errazkin Ingurumen diputatuak eta Ainhoa Intxaurrendieta GHK-ko lehendakariak hondakinak Zero Zabor filosofiak dionaren il-dotik kudeatu ahal izateko azpiegitura proposamena aurkeztu zuten pasa den astean. Irekita dauden zabortegei kutsakorrek ixteko plangintza eta hondakin guztiak tratatu ahal izateko egin beharreko azpiegiturak eman ziztuzten ezagutzera.

2015. urte amaierarako Zarauzko Urteta, Azpeitiko Lapatz eta Beasaingo Sasietako zabortegeiak itxiko direla eta zabortegeiok ixterako, gipuzkoarrok sorturiko hondakin zati guztiak tratatuko dituen azpiegitura sare alternatiboa eraikita egongo dela iragarri zuten: gaika bildutako atalak konpostatu eta birziklatu ahal izateko behar diren plantez gain, gaika biltzea lortu ez den errefusa tratatzeko azpiegiturak aurkeztu zituzten. Hondakinak kudeatzeko zentro edo gunen nagusi izango da Zubieta.

Proiektuak 131 milioi euroko kostua izango duela aurreikusi dute [erraztegiak eragin-lukeen gastuaren herena, errazte plantak 400 milioi euroko kostua duelako], eta 100 lanpostu zuzen sortuko direla.

Bagoaz pixkanaka aurrera zero zabor bidean ezta? Ondo ari gara!

**A.Z. ©**

### ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREn edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.



**Errotaberriko eskailera mekanikoetarako sarreran katea dago:** “Errotaberri kaletik San Rokerako eskailera mekanikoak hartzen diren lekuan kate bat dago, eta oso arriskutsua da. Etxepeetako aterpetik eskaileretara joateko, parez-pare egiten duzu topo katearekin, eta ilun baldin badago ez da ikusten. Ikusi izan dut jendea katearekin estropozu eginda lurrera erortzen ere. Tarte baten katea kendu egin beharko litzatekeela iruditzen zait”.



**11:00etatik aurrera kalea oinezkoentzat da:** “11:00etatik aurrera erdiguneko kaleetan ezin da autorik ibili, baina ordutegi hori ez da betetzen, bereziki eguenetan. Joan zen egunean, 11:30ak aldera, San Frantzisko kalean auto pila bat zeuden. Ordutegi hori errespetatzea eskatzen dugu”.



**Eskelak birinetan:** “Eskelak jartzen diren lekuetan ondo legoke bitrina edo beira-arasa bat jartzea, gertatu izan zaidalako haize handia egin duen egunen batean eskelaren bat lurrian topatzea. Euria egiten duenean ere sarri busti eta desitxuratzen dira eskelak horman pegatuta daudela. Beste herri batzuetan badaude, Eibarren adibidez. Ez dut uste gastu handia suposatuko lukeenik, eta gainera betirako izango lirake. Gure hildakoek merezi dute horrenbeste”.



**Melitongo industrigunean farolak itzalita egoten dira:** “Jende asko joaten da pasiazera Melitongo industrigunera, eta gaez farolak itzalita egoten dira. Farola pila bat daude inguru horretan, eta denak egoten dira itzalita. Eskertuko genuke farola batzuk behintzat piztea, ingurune horretan argia egon dadin. Eskerrik asko”.



**Txalo bat Elgoibar Ikastolari:** “Elgoibar Ikastolako guraso talde batek txaloak eman nahi dizkio ikastetxeari, zaharkituta eta egoera kaskarrean zeuden ikastolako parke eta sarreretako zakarrontziak aldatu dituztelako eta bide batez plastiko eta errefusaren edukiontziekin batera organikoentzako beste bat jarri dutelako, gure aldetik behar beharrezkoa ikusten genuena. Zorionak, eta eskerrik asko!”.



## Giza eskubideen inguruko jardunaldiak egingo dituzte martxoan Elgoibarren

Kafe-tertulia formatuko hiru hitzaldi antolatu dituzte Udalak eta Lokarrik

Elgoibarko Udalak eta Lokarrik giza eskubideen inguruko jardunaldiak antolatu dituzte martxorako, *Giza Eskubideak: Urraketatik erreparaziora* izenpean. Lokarriren eta Baketiken laguntzaz *Elgoibar bakea eraikitzen* izeneko ekimena jarri zuen martxan Elgoibarko Udalak 2012ko maiatzean, “Elgoibartik herri honetan eta euskal gizarte osoan bizikidetzeta eta berradiskidetzeta-kultura sustatzen laguntzeko”. Azken bi urteetan hainbat ekimen egin dituzte bide horretan, eta ildo horretan antolatu dituzte giza eskubideen inguruko jardunaldiak. Elgoibar 1936 elkartearen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin prestatu dute egitaraua.

### Hiru saio

Hiru saio antolatu dituzte kafe-tertulia formatuan. Martxoaren 5ean izango da lehenengo hitzaldia: *Zirardamendi. 1936. Testu inguru historikoa eta Giza Eskubideen urraketa*. Hizlariak hauek izango dira: Iñaki Goiogana Historian lizentziatua eta Sabino Arana Fundazioaren abertzaletasunaren artxibo historikoko teknikaria; Iosu Chueca Historia Garaikidean doktorea eta EHUko Historia Garaikideko Saileko irakaslea eta Lourdes Herrasti EHUko Geografia eta Historiako lizentziatua eta Aranzadi Zientzia Elkartearen kidea.

Bigarren saioa martxoaren 11n izango da. Carlos Martin Beristain, medikua eta psikologian doktorea, giza eskubideen urraketak



jasan dituzten biktimei buruzko ikerketetan aditua, eta Glen Cree ekimenaren koordinatzaileak *Indarkeriaren hausturak eta bizikidetzaren berreraikitzea* hitzaldia eskainiko du.

Azkenik, *Biktimak euskal gizartean barne hartzen dituen memoria kolektiboa jorratuz* izenburupean emango du hitzaldia Andres Krakenbergerrek, Argituz giza eskubideen aldeko elkarteko presidentea.

Saioak Ikastolan izango dira 19:00etatik aurrera, eta bi orduko iraupena izango dute. Interesatuak martxoaren 3rako eman behar dute izena 943 743 700 telefonoan edo [maite@elgoibar.net](mailto:maite@elgoibar.net) helbidera idatzita.

## Lau enpresa berri sortu dira Elgoibarren, Debegesaren laguntzarekin



Debegesa garapen agentziak 21 enpresa berri sortzen lagundu du Debabarrenean 2013an; horietatik lau, Elgoibarren. Jarduera ekonomiko horiek 37 lanpostu sortu dituzte, 2012an baino lau gehiago.

Debabarrenean sortutako lau enpresa industria sektorekoak dira, eta horiei esker, 11 lanpostu sortu dira. Debegesako arduradunen esanetan “positiboak” dira datuok, eta jarduera industrialak enplegua sortzeko duen ahalmena agerian uzten dute. Era berean, Enplegu Planaren eraginkortasuna

nabarmendu dute. Debegesatik esandakoaren arabera, azken bost urteetan sortu diren enpresetatik %80k jarraitzen dute lanean, eta hori iraupen “oso altua” dela nabarmendu dute. Ekintzaile edo enpresa berrien sortzaileei dagokienez, 25 eta 45 urte bitartekoak ziren %70, eta gehienak lanik gabe zeuden. Generoari erreparatuta, aldiz, 2013an enpresa berri bat abian jarri dutenenetatik erdiak emakumeak dira.

Eskualdean ekintzaileak sustatzea helburu duen Debabarrena Ekinean egitasmoaren barruan, 160 pertsona hurbildu ziren iaz Debegesara enpresa bat sortzeko aholkularitza edota informazio eske, eta kontsulta horien ondorioz, sortu dira 21 enpresa berri. Gehienak Eibarren sortu dira; 11, hain zuzen; Elgoibarren 4, Deban 2, eta enpresa bana sortu dituzte Sorluzen eta Mutrikun.

2014an zeregin berberari eutsiko dio Debegesak, eta aurreikuspenak onak direla esan dute, besteak beste, Gipuzkoako Foru Aldunditik 120.000 euroko laguntza jaso dutelako enpresa berriak sortzeko.

## Izena **Urko Aristi**



Mikel Irizar eta Urko Aristi

Tokikom Toki Komunikabideen bate-raguneak presidente berria du zapatutik: Urko Aristi kazetaria. Urteko batzar nagusia egin zuten zapatuan Tokikomeko bazkideek Aretxabaletan, eta hantxe izendatu zuten bi urtez presidente izan duten Mikel Irizarren ordezkoa. Araizko Mailope Kultur Elkartearen ordezkari da Aristi, eta elkarte txiki baten ordezkari den heinean, ondo asko daki zein beharrezko den denak elkartu eta sinergiak sortzea. Bide horretan, Irizarrek gaur arte egin duen lanarekin bat egiten duela esan zuen, eta norabide berean jarraitzeko konpromisoa hartu zuen, dagoeneko martxan dauden egitasmoak sendotu eta beste ekimen berriak abiaraziz.

2014 Tokikom "sendotzeko urtea" izango dela iragarri zuten batzarrean. Hasteko, administrazio kontseilua handitu dute, zortzi lagunetik hamabira. Gaur egun 47 komunikabideko sarea osatzen du Tokikom Toki Komunikabideen bateraguneak

## **Sargoateko iturria konpontzeko egindako deialdia atzeratu egin dute**

Eguraldi iragarpenagatik, Sargoateko iturria auzolanean konpontzeko biharko egindako deialdia atzeratu egin du Morkaiko mendizale elkarteak. Antolatzaileek ez dute momentuz beste deialdirik egin, eta eskerrak eman dizkiete interesa agertu duten guztiei.

## **Egitarau zabala antolatu dute Elgoibarren Martxoaren 8aren harira**

Emakumeen Nazioarteko Egurenaren harira ekintza ugari antolatu dituzte Elgoibarren, tartean Elgoibarko emakume artisauen erakusketak. Elgoibarko Udaleko Berrintasun Sailak antolatu du, eta martxoaren 7tik 15a arte egongo da zabalik, Kultur Etxean, 18:30etik 20:30etara. Martxoaren 10ean, berriz, Oihulari Klown taldeko Raquel Imaz ipuin kontalaria etorriko da liburutegira. 5-6 urte bitarteko haurrentzako saioa eskainiko du. Era berean, Gaztelekuan, martxoaren 8ari buruzko informazioa jarriko dute, eta historian zehar egon diren "emakume esanguratsuenen" berri emango dute, baita emakume elgoibartarra ere. Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean bertan, Haizea elkarteak deituta bazkaria egingo dute hala nahi duten emakumeek Sigma jatetxean (14:30). Horretarako, Pitxintxun eman behar da izena, 26 euroren truke. Aurrez, baina, 13:00etan, elkarretaratzea egingo dute Kalegoen plazan, Elgoibarko Emakumeen Kontseiluak deituta.

## **Zineforuma antolatu du Haizea elkarteak hilaren 14rako**

Mike Nichols zuzendariaren *Silkwood* filma ikusi eta komentatuko dute Kultur Etxeko hitzaldi gelan, 21:30etik aurrera. Loredi Salegik zuzenduko du zineforuma.

## Irudia **Prekarietatearen kontra**



Prekarietatearen eta pobreziaaren kontrako Elgoibarko taldeak deituta, protesta zaratatsua egin zuten joan zen egunean dozenaka elgoibartarrek. *Ez zaude bakarrik, zurekin gaudu. Ez utzi zure etorkizuna kentzen* zioen pankartaren atzean herriko kaleak zeharkatu zituzten, eta banketxeen aurrean geldialdiak egin zituzten. Bideoa ikusteko eta ekintza horretan irakurri duten agiria irakurtzeko: [www.elgoibARREN.net](http://www.elgoibARREN.net).



# Soldadutzari planto

Rafa Feijoo intsumiso elgoibartarraren alde, errepidea moztu zuten dozenaka gaztek.

2001ean amaitu zen soldadutza derrigorrez egin behar izatea. Ordutik, profesionala da Espainiako Armada, eta ondorioz, gaurko gazte askori urrutiko kontua egingo zaie, beharbada, soldadutzarena. Nagusiagoei entzunda jakingo dute intsumisioak lagundu zuela, hein handi batean, derrigorrezko soldadutza amaitzen; desobedientzia zibilean oinarritutako mugimenduari zor zaiola lorpen hori, Espainiako Armadari planto egin zieten kontzientzia eragozleei eta intsumisoei, azken batean. Joan zen eguenean bete ziren 25 urte Bilboko Gobernu Militarren aurrean –estatuko beste zenbait koarteletan ere bai– lehen intsumisioak aurkeztu zirenetik, eta borroka hura gogora ekartzeko baliatu du BARRENEK urteurrena.

Ainara Argoitia

Soldadutzari eta ordezeko gizarte zerbitzuari ezetz esan zioten lehenengo intsumisio haiek 1989ko otsailaren 20an. Espainiako Arma-

da “garaitezinaren” kontra egin zuten, arma bakartzat desobedientzia zibila baliatuta. Urtarril hartan soldadutza egitera deitu zi-

tuzten gazteak ziren guztiak, kontzientzia arazoak arrazoituta, kartzelatzeko mehatxuei aurre egin zieten gazteak. Bidea urratu zuten, eta handik aurrera, hilero hasi ziren intsumisioak aurkezten. Intsumisioa mugimenduaren hastapenak ziren haiek, baina berez, mugimendu antimilitarista aurretiagokoa da. Hona hemen, puntuz puntu, datarik esanguratsuenak.

- **1876:** Bigarren Karlistaldia amaituta, derrigorrezko soldadutza ezarri zuen Espainiak Hego Euskal Herrian.

- **1960-1970:** Jehovaharen lekukoak izan ziren Espainiako armadaren kontrako lehenengo kontzientzia eragozleak. Kontzientzia arazoak arrazoitu zituzten soldadutzari uko egiteko, eta estatu osoan ehunka atxilotu zituzten. Cadizko (Espainia) San Fernando gazteluan, esaterako, 200dik gora





Jehovako lekuko kartzelatu zituzten 60ko hamarkadan, eta hamar urte baino gehiagoko kartzela zigorrak bete zituzten askok.

- **1971:** Pepe Beunza kontzientzia eragozle politikoa atxilotu eta epaitu zuen Valentziako Auzitegi Militar batek apirilaren 23an. Valentziako Unibertsitateko Ikasleen Sindikatu Demokratiko kide zen Beunza, eta bera hartzen da gure historia garaikideko lehen kontzientzia eragozle politikotzat. Kontzientzia arazoak argudiatzeaz aparte, Armadaren instituzioa kritikatu zuen.

- **1975:** Kontzientzia eragozleen taldeak sortzen hasi ziren. Pepe Beunzak hasitako bidera beste kontzientzia eragozle asko hasi ziren batzen. Isildu nahi izan zituzten, baina ordurako mugimendu antimilitaristak oihartzun zabala hartu zuen gizartean. Epaiketa militarrek edo gerra kontseiluak egiten zizkieten kontzientzia eragozleei, eta preso sartu.

- **1977:** Espainiako Amnistia Legeari esker, aske gelditu ziren ordura arteko kontzientzia eragozle asko.

- **1980:** MOC talde antimilitaristak biler txanda hasi zuen, nazioartean atxikimenduak batzeko.

- **1981:** NATO n sartu zen Espainia, eta bost urte geroago erreferenduma egin zen, erabakia berresteko. Jende asko mobilizatu zen ezetzaren alde. Mugimendu antimilitaristak indar handia hartu zuen garai horretan, eta eragozle kopuruak nabarmen egin zuen gora.

- **1984:** Kontzientzia eragozpenari nolabaiteko irtenbidea eman aldera, Kontzientzia Eragozpenaren legea onartu zuen Espainiako Legebiltzarrak abenduaren 28an, eta urtebete geroago, Ordezko Gizarte Zerbitzua martxan jartzeko legea onartu zuen. Gobernuak gizarteari zerbitzu batzuk ematera behartu nahi zituen soldadutza egiteari uko egin zioten eragileak.

- **1987:** Kontzientzia Eragozleen mugimendua saritu zuen Giza Eskubiden Aldeko Espainiako Elkarteak, urteko sari nagusiarekin.

- **1989:** Indarrean jarri zuten bost urte aurretik onartu zuten ordezko gizarte zerbitzua arautzeko legea eta Gurutze Gorriak ehunka lanpostu edo plaza eskaini zituen.



Ordezko gizarte zerbitzua martxan jarri zuten urte hartan amnistiatu zituzten ordura arteko eragozleak.

- **1989:** Lehenengo intsumisoak aurkeztu ziren, otsailaren 20an, Bilboko Gobernu Militarren aurrean. Ipar Euskal Herrian ere hasi zen indarra hartzen mugimendu antimilitarista.

- **1991:** Soldadutza Legearen erreforma onartu zuten. Ordura arte epaiketa militarrek egiten zizkieten intsumisoei, baina 1991n legeak aldatu zituzten, intsumisoak epaitegi zibiletan epaitzeko. Aldi berean, zigorrak ere gogortu zituzten, baina. Zigor Kodeak urtebete inguruko kartzela zigorrak ezarri zizkien, eta Kode Zibilak, bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra. Eta intsumisoz betetzen hasi ziren kartzelak.

- **1993:** Eusko Legebiltzarrak intsumisioa zigorgabetzeko eskatu zuen. Era berean, urte horretan bertan, espetxe politikan aldaketa batzuk egin zituzten, eta intsumisoei hirugarren gradua ezartzen hasi ziren, kartzelak intsumisoz betetzen ari zirelako eta arazo bihurtzen ari zelako hori Gobernuarentzat. Azkar erantzun zuten, baina, intsumiso presoek. Hirugarren graduari planto egiten hasi ziren.

- **1993:** Rafa Feijoo intsumiso elgoibartarra epaitu zuten. Bera izan zen epaitu zuten lehen intsumiso elgoibartarra.

- **1994:** Gose greba egin zuten Iruñeko kartzelan preso zituzten 46 intsumisok, eta horietako zortzi Euskal Herritik kanpoko kartzelataratu zituzten.

- **1996:** Hainbat Udal intsumiso deklaratu hasi ziren, eta Eudima sortu zen, Euskal Udalerri Intsumisoen Mankomunitatea. Udal

horiek uko egin zioten soldadutza joan behar zuten gazteen zerrendak emateari, eta zenbait alkate epaitu eta inhabilitatu zituzten.

- **1996:** Defentsa Ministerioak onartu zuen bost kontzientzia eragozletik bakarrik egiten zuela ordezko gizarte zerbitzua, eta intsumisioa "Estatu arazo" bihurtzen ari zela aitortu zuen Juan Alberto Belloch Espainiako Justizia ministroak.

Alderdi Popularrak irabazi zituen urte hartan Espainiako hauteskundeak eta 2003rako Armada profesionalizatuko zuela iragarri zuen. Urtebete beranduago, Defentsa Ministerioak 2.000 milioi pezeta inbertitu zituen Armada profesionalaren aldeko kanpaina.

- **1997:** Zigor Kode berria aplikatuta, intsumisoak inhabilitatzen hasi ziren, baina inhabilitazioak betetzeari uko egin zioten berehala Euskal Herriko Unibertsitateak, eta EAJ, EA, IU eta HB alderdiek. Mugimendu antimilitaristak, bestalde, *Azkena tonto* kanpaina hasi zuen, eta ehunka mila kontzientzia eragozle batu zitzaizkion estatu osoan.

- **1998:** Kontzientzia Eragozpenaren Lege berria indarrean jarri zen, eta ordezko gizarte zerbitzu aldia eta soldadutza aldia berdindu egin zituzten.

- **2001:** Derrigorrezko soldadutza amaitu zen Espainian, Frantzia eta Euskal Herri osoan.

- **2002:** Zigor Kodea eta Zigor Kode Militarra erreformatzera behartuta sentitu zen Espainiako Gobernuak, intsumisioari lotutako delituak bertan behera lagatzeke, eta amnistia eman zieten auzibidean zeuden intsumituei eta kartzelan preso zituztenei.



**XABIER GOIKOETXEA**

(Mendaro, 1968) Intsumisoa

**Intsumiso egin zinen. Egiguzu atzera begirako bat.**

1991ko urtarrilaren 8ko data zeraman gutun bat jaso nuen etxean 23 urte nituela, esanez soldadutza egitea tokatzen zitzaidala eta urte horretako urtarrilaren 25ean Irunen koarteleratu behar nuela. Prorrogak eskatuta luzatu nuen ordura arte, ikasten ari nintzela arrazoituta, baina halako batean erabaki nuen nahikoa zela eta intsumiso egin behar nintzela. Garbi neukan ez nuela soldadutzarik egin nahi, eta halaxe esan nion Irunen koarteleratu behar gineno i egokitzen zitzaigun epaileari. Dokumentazio guztia bueltan bidali nion, eta soldadutza egiteari uko egiten niola agertu. [Instrukzio Epaitegitik] karta bat bidali zidaten gero, eta Zigor Kodeko 127. artikulua aplikatuta,



18 hilabeteko kartzelaldia eskatu zuten niretzat. 92an edo, Mendaroko bake epaileak deklarazioa hartu zidan, epaitegitik iritsitako agindua betez, eta hilabetez sinatzera joaten egon nintzen; "kontrolatuta", nolabait. Noiz ez daukat garbi, baina halako batean iritsi zitzaidan epaiketarako deialdia ere. Donostiako Auzitegira deitu ninduten, eta han joan nintzen. Mendarost lagun autoinkulpatu ziren nire kontrako auzibidean, tartean Anjel Bazterretxea Mendaroko abadea eta Jose Luis Zubiaurre *Usetxe* [Mendaroko lehenengo kontzientzia eragozle politikoa]. Intsumituei babesa agertzeko jende asko autoinkulpatu zen garai hartan. Donostian, zortez, egokitu zitekeen epailerik onena tokatu zitzaidan, hura ere tonbola bat zelako, eta urtebeteko kartzela zigorra ezarri zidan. Aurrekaririk ez neukanez, baina, ez nuen kartzelara joan beharrik izan.

**Zergatik egin zinen intsumiso?**

Ni gerraren aurka nengoen, armen kontra, eta soldadutza denbora galtzea zela iruditzen zitzaidan. Intsumiso mugimenduan edo mugimendu antimilitaristan, baina, ideia askotarikoak batzen ginen. KEM-MOC taldekoen eskutik sartu nintzen ni intsumisioaren mugimenduan. Pentsaera anitzekoak batzen ginen. Bazeuden batzuk, esate baterako, Espainiako armadaren kontra zeudenak, baina hemengoaren alde. Denetarik zegoen. Intsumiso egin zirenetako batzuk kanpora ere alde egin zuten, edota etxe okupatuetan babestu.

**Gizartean oso errotuta zegoen adin jakin bateko gizonetako soldadutza egitera joatea, eta pentsatzekoa da estrategia sakona eskatuko zuela kontra egiteak. Zu intsumiso egin aurretik kontzientzia eragozleek lan bat egin zuten, baina zure**

**inguruak nola bizi izan zuten zure kasua?**

Nik garbi neukan zer nahi nuen eta zer ez, eta alde horretatik lasai nengoen. Inguruaren ere ez zidaten kontra larregirik egin, eta onartu zuten. Baina, bai, ez zen erraza, bazekitelako kartzelan buka nezakeela. Ni neu, hala ere, lasai nengoen, onartuta neukalako hori. Garbi neukan soldadutza amaitu beharra zegoela, eta prest nengoen zetorrenari aurre egiteko. Bani-tuen nire antzera pentsatzen zuten lagunak ere inguruan, eta, neurri batean, babestua sentitu nintzen. Garai hartan Donostian nengoen ikasten eta han ia astero elkartzen ginen, batez ere estrategiak adosteko eta autofinantziazio bideak aztertzeko. Epaiketa gastuei-eta aurre egiteko, pegatinak eta txapak saltzen genituen, txosnak jarri...

**Espainiako Armada garaitu zenuten. Zein balorazio egiten duzu lortutakoaz?**

Ez nuke esango guztiz lortu genuenik, militarrek eta armadak ez zirelako bukatu, baina derrigorrezko soldadutza behintzat amaitu zen. Bistan da uste zutena baino min handiagoa egin genuela. Nik uste dut ez zutela imaginatu ere egiten mugimendu hark horrenbeste indarra hartuko zuenik, baina lortu genuen, bide baketsu eta originalak erabilita. Oraingo mutil gazteek kezka bat gutxiago dute behintzat; bizitzako urtebete tonto-tonto galtzeko beharrik ez dute behintzat. Estatuaren kontrako garaipen bat izan zen, beraz. Lortu genuen gizartea mobilizatzea, eta iruditzen zait desobedientzia eta antimilitarismoa gaur ere tresna onak direla borrokarako. Nik beste bizitza bat egiten dut orain, baina badira tresna horiek erabiltzen dituzten taldeak gaur ere.





## AITOR ESNAOLA

(Elgoibar, 1969) Intsumisioa

baina kontzientzia kontuengatik, nik bide hau aukeratu nuen.

### **Eta deitu zintuzten zu ere epaiketara.**

Bai, iritsi zitzaidan gutuna [1994ko apirilaren 19rako deitu zuten Donostiako auzitegira]. Gogoan daukat autoinkulpazioak batzen ibili nintzela herrian. Hau da, intsumiso egitera animatu eta bultzatu nindutela adieraziko zuen jendearen bila, eta jende askok babestu ninduela. Lan handia egin genuen alderdi politikoetako eta sindikatu etako jendearen atxikimendua batzen, eta gogoratzen naiz EAJko

dez, Luziano Arregi eraman zuten barrura [Mungiara deitu zuten soldadutza egitera, baina uko egin zion eta bi urte, lau hilabete eta egun bateko zigorra ezarri zioten Arregiri. Sartu eta berehala, baina, hirugarren gradua eman zioten, eta guztira urtebete pasatxoko zigorra bete zuten]. Gogoan daukat gero gu baino zaharragoak ziren intsumiso askori amnistia eman zietela, baina Alejo Rolo eta ni turko-buru laga gintuztela, atzetik zetozenak beldurtzeko-edo.

### **Zer balorazio egiten duzu lortutakoaz?**

Intsumisioak derrigorrezko soldadutzaren amaiera behartu zuen, eta hori bada lortu bat, baina egia da hori lortu zenean, mugimendu antimilitarista asko apaldu zela, asko hustu zela. Eta pena da gaur ere tresna ona izan zitekeelako antimilitarismoa.

### **Erabilgarri ikusten duzu desobedientzia zibila? Zertan eta zertarako?**

Bai, bada. Tresna ona da, eta adibide batzuk badaude, M15 suminduen mugimendua, esate baterako. Non aplikatua badago gaurko gizartean, egia esan, baina gaur bakoitza bere rollora dago, eta ni neu ere bai e! Gure garaian lortu genuen herritarrek erakartzea, baina nik uste dut herritarrek eurek ere beste jarrera bat zutela. Gaur dena jaten dugu, isil-isilik. Gure intsumiso garaiko oroitzapen onak ditut nik. Taldean batzen ginen kezkatzen gintuzten gauzen kontra, eta babesten genuen elkar. Gaztetxe bueltakoak ginen denok, eta gogoratzen naiz taldeko batzuk Debabarreneko bileretara-eta joaten zirela, gero kanpoan egiten ari zirenaren berri emateko herrian.



### **Egin dezagun atzera. Zein izan zen zure kasua?**

Soldadutza egitera joateko garaia iritsi zitzaidan, baina nik garbi neukan ez neukala denbora hori galtzeko gogorik, eta gainera, bat egiten nuen mugimendu antimilitaristarekin. Kontzientzia eragozle egin nintzen lehenengo. Horretarako, estrategia berdina erabili genuen denok. Idatzi baten bidez epailea ez zela gu epaitzeko nor esan genuen. Garai hartan Gaztetxe bueltan genbiltzanetakoa asko batera egin ginen kontzientzia eragozle, eta taldearen babesa geneukan. Garbi neukan ez nuela soldadutza egingo eta ordezkoko gizarte zerbitzuari ere uko egin nion. Intsumiso egin nintzen. Garai hartan, jende askok egiten zuen bat soldadutzara ez joate horrekin eta badakit sendagileren batekin-edo tratua izanez gero, bazeudela soldadutzatik libratzeko beste modu batzuk,

jendea ere etorri zela epaiketara, ni babes-tera. Epaiketara, Iban Esnaola intsumiso elgoibartarrak egin zuen nire defentsa. Intsumiso egiteagatik, bi urte, lau hilabete eta egun bateko kartzela zigorra eskatu zuten niretzat, baina ez ninduten kartzeleratu. Ez zen etorri inor nire bila. Tonbola bat izan zen hura, eta denok ez genuen zorte bera izan. Elgoibarren, adibi-



# Jon Larrañaga

URBIZIKO PRESIDENTEA

**“Elgoibarrek itsasorik ez edukitzea ez da traba urpekaritza zale izateko”**

Urbizi Elgoibarko Urpekari Elkarteak antolatuta, Itsaspeko Irudi eta Zinema Jardunaldiak egingo dituzte estreinakoz martxoaren 5etik 7ra bitartean, Elgoibarko Kultur Etxean. Filmen emanaldiak, argazki erakusketa bat eta hitzaldiak izango dira, besteak beste, jardunaldi horietan. Horrez gain, herritarrentzako urpekaritza saio bat ere eskainiko du Urbizik Olaizaga kiroldegiko igerilekuan, martxoaren 8an. Jardunaldi horien aitzakian Jon Larrañaga Urbiziko presidentearekin jardun dugu berbetan.

**Itsas jardunaldiak antolatu dituzue estreina-koz. Zer dela-eta?**

Urbizi taldekoak urpekaritza munduan ibiltzen gara; hori da gure pasioa, eta egiten ditugun ekintzen berri eman nahi diegu herritarrei. Beste mota bateko kirolak egiteko aukera ere badagoela erakutsi nahi dugu. Elgoibarren ez daukagu itsasorik, eta egiten duguna erakustea ez da erraza izaten. Jardunaldi hauen bidez azalduko dugu zer

den urpekaritza mundua, eta itsasoa ekarriko dugu Elgoibarrera.

**Zer ikusiko dugu jardunaldietan?**

Filmak, erakusketak eta hitzaldiak egongo dira. Filmak ez dira denak Urbizik eginikoak, baina gurekin elkarlanean ibilitako taldeek ekoiztutakoak dira. Hiru egunetan proiektatuko ditugu filmak, gaika banatuta. Lehenengo egunean itsaspean dauden ontziei buruzko filmak eskainiko ditugu, Bilbo-

ko Urtabi taldekoen laguntzaz. Libanon hondoratutako HS Victoria ontzia buzeatzera egindako bidaia azalduko dute. Ontzi oso berezia da. Proaz behera hondoratuta eta zutik dago, itsas mailatik 140 metrora. Historia eta xarma handia dauka; interesgarria iruditu zitzaigun. Era berean, omenaldi txiki bat egin nahi izan diogu Urtabiko Andoni Asenjori, eta berak eginiko film bat ere eskainiko dugu: hemen inguruan hon-

doratutako ontzi mitikoena Mina Mari da gure ustez. Matxitxako parean dago, Bermeotik hiru miliatara. Hondoratutako ontzietara egiten den lehen espedizioa izaten da hau Euskal Herrian.

### **Hondoratutako untiak lehenengo egunean. Zein izango da bigarren eguneko gaia?**

Espeleobuzeoa, hau da, urpekaritza kobetan. Katalunia eta Aragoi arteko Montsec azpian dagoen *Urrezko zuloa* eginiko espedizioa ekarriko digute. Kobazuloetan buzeatzeak dituen zailtasunak, jarraitu beharreko prozedurak, zein lan daukan aurretik eta ondoren... Hori guztia erakutsiko digute dokumental batean. Mikel Zabaleta legezpiarrak eskainiko du hitzaldia, eta espedizioetarako erabiltzen duten materiala ere erakutsiko du.

### **Hirugarren egunean, hurbilgoko kontuak ekarriko dituzue, ezta?**

Bai, Kantauri itsasoan eta hemendik gertu urpekaritzarako aukera interesgarriak daukela erakutsi nahi dugu. Guk izugarri disfrutatzen dugu, behintzat. Hizlaria Asier Etxezarraga izango da. Lehenengo filma Getarian gauzez eginiko espedizio bati buruzkoa izango da. Bigarren filmak ez du honekin zerikusirik: Mikronesian koloretako arraintxo artean ur gardenetan eginiko espedizioari buruzkoa izango da. Gai desberdinak biltzen saiatu gara. Film bakoitzarekin hizlari bat egongo da, eta ikusleek galderak egiteko aukera izango dute. Horrez gain, Urbiziko jendeak urpean ateratako argazkiekin erakusketa egingo dugu Kultur Etxeko so-toan. Era berean, urpekaritzako materialak izan duen eboluzioa ere erakutsiko dugu.

### **Marxoaren 8an urpekaritza bataioa egingo duzue. Zertan datza?**

Olaizaga kiroldegiko igerilekuan egingo dugu saioa. Ur azpian arnasa hartzea zer den probatzeko aukera eskaini nahi dugu. Ez da ikastaroa izango, baina urpekaritzak eskaintzen dituen sentazioak probatzeko aukera ona da. Trinitate jaietan egiten dugu urtero ekintza hau bera, eta normalean 20-30 bat lagun etortzen dira.

### **Noiz eta zertarako sortu zen Urbizi?**

Urpekaritza munduan zebilen talde batek sortu zuen taldea orain dela 25 bat urte. Grekoen eta erromatarren garaian ere zerbait bazegoen, baina nahiko kirol berria da, eta gaur egun aukera asko dagoen arren, orain dela 25 urte ez zen hain erraza urpe-

karitzan ibiltzea. Gaur egun nahiko erraz erosi daiteke urpekaritzarako materiala, baina garai hartan gauzak oso garesti zuden. Taldea sortu zuten euren zaletasuna herrian zabaltzeko, materiala gordetzeko lokal bat edukitzeko eta materiala konpartitzeko. Talde txikia gara, 42 bazkide gara gaur egun, Elgoibarkoak eta kanpokoak. Lotura handia sortzen du urpekaritzak jendearen artean, kirol soziala da, ez da bakarrik praktikatzeko.

### **Zein zerbitzu eskaintzen ditu Urbizik?**

Bonbonak alokatzen ditugu, eta erabili ondoren berriz kargatzeko konpresorea ere badaukagu. Mota guztietako materiala alokatzen dugu. Eskola Kirolaren barruan, bestalde, urpekaritza zer den erakusteko saioak eskaintzen ditugu. Bestalde, Gipuzkoako Federazioan gaudenez, urpekaritzan federatuta daudenentzat irteerak antolatzen ditugu Pasaian.

**“Kirol soziala da urpekaritza, ez da bakarrik praktikatzeko kirola”**

### **Elgoibar itsasorik gabeko herria izan arren, urpekaritza talde bat dauka. Badago urpekaritzarako zaletasunik?**

Bai badago. Elgoibarrek itsasorik ez edukitzea ez da traba urpekaritzarako, eta badago zaletasuna herrian. Espainian federatu gehien dituen herrialdea Madril da! Elgoibartik, gainera, itsasoa bertan daukagu. Kantauri aldean ondo kokatuta gaude: Gipuzkoako eta Bizkaiko kostak oso desberdinak dira, eta biak ditugu gertu.

### **Urte asko daramatzazu zuk urpekaritzan. Zein da buzeatzeko tokirik gustukoena zuretzat?**

Leku askotan egon naiz: Itsaso Gorrian, Asiako hegoaldean, Malaysian, Indonesian, Mexikon, Eskoziatik iparraldera Scapa Flow-n... Baina aukeratzekotan bi leku aukeratuko nituzke, bat aukeratzea ezinezkoa delako. Guraso batek zein seme-alaba maiteago duen esatea modukoa da hori ni-

retzat. Urrun ibili naizen arren, eta gauza konplikatuak egin ditudan arren, Getariko gaueko buzeoarekin geratzen naiz, batetik. Bestea, Matxitxako ondoko Arribolas hondartzan egiten den urperatzea aukeratuko nuke. Oso samurra da, baina badauka nolabaiteko xarma berezi bat.

### **Gauzez buzeatzea aipatu duzu. Zer ikusten da gauzez ur azpian?**

Egunez baino askoz gehiago ikusten da. Bizi askoz gehiago egoten da gauzez, eta fokoen laguntzaz gauza asko ikusten dira. Esperientzia oso polita da, erlaxatzeko oso aproposa. Guri izugarri gustatzen zaigu. Jendeak ondo pasatzen du normalean, baina batzuk beldurtu egiten dira.

### **Fisikoki zein prestaketa eskatzen du urpekaritzak?**

Ez du prestaketa fisiko handia eskatzen, ez da sekulako atleta izan behar urpekaritza egiteko. Gutxieneko bat behar da, eta elkarre batzuek eskatzen dituzte medikuaren frogagiriak, bihotzeko, eta bereziki, belarriko gaitzik ez daukazula egiaztatzeko. Presioa dela-eta, belarriak osasuntsu edukitzea da garrantzitsuenetakoa.

### **Zein sekretu gordetzen ditu itsasoak?**

Sekretu asko gordetzen ditu itsasoak, onak eta txarrak. Hondoratutako ontziak eta horren atzean dagoen historia guztia ezkutatzten du batetik itsasoak. Arrain espezie pila bat, eta oraindik espezie berriak deskubritzen ari dira, Asia hegoaldean bereziki. Alde txarra, zaborra da. Itsasazpiak erakusten digu zein zikinak garen. Denetik botatzen dugu itsasora.

### **Zein arrisku ditu itsasoak?**

Istripu bat edonork eduki dezake, baina urpekaritza egiteko gutxieneko prestakuntza bat beharrezkoa da. Itsasoa ez da gure medioa eta neurri guztiak hartu behar dira. Arrisku gehienak geuk sortutakoak izaten dira: arrantzako pitak geratzen dira sarri eta horiekin kateatuz gero, sustoak hartzen dira. Norberaren trebakuntza eta teknikaren arabera irteerak egin behar dira.

### **Itsasoari beldurra ala errespetua zor zaio?**

Errespetua. Itsasoak asko ematen digu, guretzako pasio bat da, eta ahal dugun guztian itsaso bueltan ibiltzen gara, beti errespetuz. Jakin behar dugu jakiten itsasoak noiz uzten digun sartzen eta noiz ez; berak agintzen du.

# maria perez

## 11 urte

l  
x  
i  
k  
i  
b  
a  
r  
r  
e  
n

### Ba al daukazu sakelako telefonorik?

Bai, 10 urte nituenetik. Telefono berria orain dela astebete ingurutik daukat, Interterako konexioa ere badauka.

### Zertarako erabiltzen duzu eskuko telefona?

Lagunekin hitz egiteko, mezuak bidaltzeko eta jolasteko. Lagun batzuek ez daukate oraindik, baina gehienek bai. Guk lagatzen diegu amari deitzeko edo jolasteko.

### Telefono kabina batek nola funtzionatzen duen badakizu?

Ezta idearik ere! Ez dut sekula erabili, gauza arraro bat da niretzat.

### Zein hiru elementu eramango zenituzke irla galduta batera?

Jana, edaria eta arropa. Telefona utzi egingo nuke, han ez nuke beharko.

### Zertarako nahiko zenuke 18 urte izatea?

Kalean nahi beste denbora egon ahal izateko. Asteburuetan gurasoak kalean badaude denbora gehiago ibiltzen gara kalean, baina bestela ordua jartzen digute etxeratzeko.

### Inauteriak gainean ditugu. Gustatzen zaizu mozorrotzea?

Bai, pila bat! Besteen mozorroak ikustea ere gustatzen zait. Zein den zein asmatzea gustatzen zait. Barre egiten dugu.

### Aurpegia bistan ala ezkutuan?

Aurpegia ezkutuan gehiago gustatzen zait. Inork ez ezagutzeko eta sustoak emateko.

### Inauterietako ekintzen barmuan, karaokea antolatu dute. Gustatzen zaizu kantatzea?

Bai! Koadrilan hartuko dugu parte; denok batera egingo dugu dantzan.

### Zein da gehien gustatzen zaizun musika taldea?

Denetik entzuten dut; ez daukat talde gustuko bat.

### Mendia ala hondartza?

Hondartza.

### Zer nahiko zenuke izan etorkizunean?

Ingelesko irakaslea. Asko gustatzen zait ingelesa, eta bidaiatzeko aprobetxatuko nuke.

### Zein da zure ametsa?

Lagunekin Londresera joatea asteburu bat pasatzera.

### Lo ala esna egiten duzu gehiago ametsetan?

Lo, denbora gehiago izaten dut amets egiteko.

### Iratzargailuak jotzen duenean lehenengoan jaikitzen zara ala bost minutu gehiago eskatzen dituzu?

Bost minutu gehiago eskatzen ditut, eta askotan hamar izaten dira. Ama etortzen zait bila askotan.

### Azterketa bat baino bost minutu lehenago zer egiten duzu?

Ahal dudan guztia errepasatu. Batzutan jolasordua ere erabiltzen dugu errepasatzeko.

### Zerk jartzen zaitu urduri?

Azterketa egin ondoren nota jakin arteko denbora horrek. Liburuan begiratzen dut ia ondo erantzun dudana, baina askotan nota ez da esperotakoa izaten.

### Eta, pozik?

Lagunekin egoteak.

### Eta, zerk tristetzen zaitu?

Zerbait ondo egin duzula pentsatu eta gaizki irteteak.

### 11 urte dituzu. Non ikusten duzu zure burua beste 11 urte barru?

Gurasoen etxean bizitzen eta ikastaroak egiten, nire anaia bezala. 22 urte ditu, eta horrela dabil. Hurrengo urteetan zerbait izateko prestatzen ikusten naiz.



# Pertsona batzuei zergatik erortzen zaie ilea?

## Iker Errasti

6 urte

Kaspa daukatelako. Kaspa erderazko gauza bat da; buruan irteten da, eta hori irteten zaienei erortzen zaie ilea.

Kaspa ez daukatenei ez zaie erortzen.

Nire etxean denek daukate ilea.



## Iker Izagirre

6 urte

Haizeagatik. Haize handia egiten duenean ilea asko mugitzen da, eta gero erori egiten da. Nire amaxori mugitzen zaio. Ilea luzea dutenei gehiago mugitzen zaie. Nik ile motza daukadanez, haizeak ez dit mugitzen, eta horregatik ez zait erortzen.



## Markel Miguel

6 urte

Gehiegi mozten dutelako. Ilea moztu behar da, baina ez dena, bestela burusoil geratzen zara. Nik gutxi mozten dut badaezpada. Nire aitak ez dauka ilerik. Hazten zaio eta moztu egiten du! Ez dakit zergatik.



## Naia Zubizarreta

6 urte

Txanpu txarra erabiltzen dutelako. Gure etxean txanpu ona erabiltzen dugu. Nik ondo zaintzen dut ilea. Gustatzen zait ilea garbitu eta orraztea. Niri ez zait eroriko! Nik ez dut nahi ilea jaustea, ile luzea gustatzen zait.



## Pello Elizburu

6 urte

Gero berriz hazten delako. Haginak bezala. Jausi egin behar da, berriari lekua egiteko. Ilea hazten, hazten, hazten doa eta gero jausi! Niri ez zait jausiten; moztu egiten didate. Batzuetan amak eta besteetan aitak. Makinarekin mozten didate, eta izkinak guraizeekin.



## Nerea Sota

6 urte

Beste ile bat hazten ari delako, estropeatu den ilea erori egiten da. Bestela ile luzeegia geratzen da, eta zatarra geratzen zara. Niri gustatzen zait sorbaldara arte. Burusoil izan nahi dutenek dena mozten dute.



## Erretratu zaharra



1987

Aste honetako erretratu zaharra Mertxe Ondarzak ekarri du BARRENERA. 1987ko inauterietan aterata dago argazkia. Jose Antonio Osoro 'Katxo' eta Mertxe Ondarza bera ageri dira argazkian. Bizilagunak ziren, eta urtero mozzorrotzen ziren inauterietan. Urte hartan, baina, Mertxek ez zuen mozzorrotzeko asmorik. Azken momentuan animatu zuen Katxok, eta dotore irten ziren biak kalera.



ESKERTZA

## JUAN MELLA LAVANDEIRA

2014ko otsailaren 24an hil zen, 89 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN

2014ko otsailaren 18an hil zen, 44 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu gure bihotzetan.*

Eleneren ikastolako lagunak





## Elgoibarko bigarren judo txapelketa jokatuko dute bihar kiroldegian

Alebin eta benjaminetako 200 bat umek eman dute izena



**E**gokran judo elkarteak antolatuta, Elgoibarko judo txapelketa jokatuko dute bihar, bigarren urtez. Alebin eta benjamin mailako gazttxoek hartuko dute parte, eta guztira, 200 bat umek eman dute izena. Donostia, Lezo, Urnieta, Usurbil, Irun, Zarautz eta Elgoibarko umek hartuko dute parte. 15:30ean izango da proba, Olaizaga kiroldegian. Egoitz Mora Egokran taldeko arduradunak jakinarazi duenez, aurtengo jardunaldia ondo iriteten bada, datorren urtean Gipuzkoako alebin mailako txapelketa Elgoibarren antolatzen ahaleginduko dira.

### Arnoatera korrika igoera egingo dute bihar Mendaron, Aingeru Guardako jaien barruan

Aingeru Guardako jaiak ospatuko dituzte asteburuan Mendaron, eta egitarauaren barruan, Arnoateko Igoera antolatu dute biharko. 11:30ean irtengo dira korrikariak Plaza auzotik, eta 500 metroko desnibel positiboa gainditu beharko dute, 4,5 kilometroko ibilbidean. Izenematea egunean bertan egin daiteke, lasterketa hasi aurretik. Parte hartzea doakoa izango da. Lasterketaren ondoren hamaiketako banatuko diete partaide guztiak.

### Mintxetako harmailetako teilatua berrituko dute

Udal Kirol Patronatuak Mintxetako harmailetako teilatua berritzeari ekingo dio martxoan. Iazko maiatzean botatako txingorak kalte handiak eragin zituen harmailetako teilatuko plaketan, eta gehienak zulaturik geratu ziren. Horren ondorioz, aseguruetik jasotako diruarekin teilatua berrituko du Kirol Patronatuak. Obrak martxoan hasiko dira eta hiru bat aste iraungo dute.



## EMAITZAK

### FUTBOLA

Lagun Onak 1 – Haundi 1 (3. maila)  
Urola 1 – Elgoibar 0 (Erreg.)  
Elgoibar 6 – Mondra 0 (Jub.)  
Urola 0 – Elgoibar 1 (Kad. A)  
Elgoibar 4 – Zestoa 2 (Kad. B)  
Elgoibar 3 – Euskalduna 0 (Inf.)  
Zumaia 0 – Elgoibar 4 (Inf. Txiki)  
Anaitasuna 2 – Elgoibar 1 (Aleb.)

### PILOTA

#### Debarroko Txapelketa

Lagunak 22 – Allerru 21 (2. mailako jub.)

#### Pala

Batzokiko 16 – Lagunak 25 (2. mailako nag.)

### ARETO FUTBOLA

Zierbena 5 – Concepto Egile Elg. 4 (2B)  
Anoeta 5 – King-Kong Elg. 1 (Jub.)

### SASKIBALOA

Viento Sur Elg. 52 – Dolphins 43 (Nag.)

### ESKUBALOA

Alkorta Elg. 26 – Corrales 24 (Sen. mut.)  
Amenabar 22 – Gabaz Elg. 16 (Sen. mut.)  
Karibe Zaharra 28 – Beristain Elg. 30 (Jub. mut.)  
Astigarraga Elg. 23 – Kukullaga 32 (Jub. neska)  
La Salle 44 – Pneumax Txarriduna Elg. 35 (Kad. mut.)  
Tecnifuelle Elg. 23 – Kukullaga 15 (Kad. neska)  
Murgil Elg. 17 – Aloña Mendi 28 (Kad. neska)  
Bankoa Elg. 24 – Ama Guadalupekoa 19 (Inf. mut.)  
Ikus Elg. 30 – Egia 19 (Inf. neska)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 1

10:00 Elgoibar – Anaitasuna (Inf. Txiki)  
11:30 Elgoibar – Anaitasuna (Kad. A)  
16:30 Haundi – Arenas (3. maila)  
18:30 Elgoibar – Gasteiz (Nesk.)

### ARETO FUTBOLA (Kiroldegian)

Zapatua, 1

19:00 Concepto Egile Elg. – Inter (2B)

### PILOTA

Barixakua, 28

21:15 Lagunak – Gazteleku (3. mailako kad.)  
21:45 Lagunak – Usurbil (1. mailako nag.)  
22:30 Lagunak – Beloki (Pala. 2. mailako nag.)

# Hasi dira inauteriak, eta martitzenera arte hainbat ekintza egingo dira Elgoibarren eta Mendaron mozorroekin lotuta



## INAUTERIAK ELGOIBARREN

### 28 BARIXAKUA

**15:15-16:30** Euskal Inauteria

Ikastolako haurren Euskal Inauteria. Kalejira eta dantza saioa Ikastolatik Kalegoen plazaraino. (Eguraldi txarra eginez gero, Ikastolan izango da).

**17:00-19:30** Mozorro festa

Merendola eta mozorro lehiaketa Ludotekan.

**19:30-22:00** Pintxo poteoa

Vacuna elkarteak pintxo-poteoa antolatu du. Kalegoen plazan hasiko dute poteoa, eta antolatzaileek mozorrotuta joatea eskatu dute. 19:30ean elkartuko dira plazan, eta Maalan amaituko dute ibilbidea, 22:00ak aldera. Mozorrotzeko gaia ere jarri dute: heroeak eta bilauak. Pintxo-potea Gabaz tabernan amaituko dute. Mokadutxo emango diete han, eta gau osoan dantzarako musika izango dute.

### 1 ZAPATUA

**18:00** Atxutxikaraokea

Elgoibarko Izzarren Atxutxiamaika aisialdi taldeak Atxutxikaraokea antolatu dute 0-12 urte bitarteko haurrentzat. Kalegoen plazan izango da berez, baina euria egiten badu Maalan egingo dute.

**19:00** Mozorro eta karrozen desfilea

Mauxitxa txarangarekin eta erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin. Maalan hasiko da.

**20:30** Txokolatada

Maalako parkean.

**23:00** Karaokea

16 urtetik gorakoentzat, Maalako parkean.

**23:30** Kalejira

Mauxitxa txarangaren kalejira, Kalegoen plazatik Maalako parkera.

**24:00** Erromeria

Fan&Go taldearekin, Maalako parkean

### 2 DOMEKA

**18:00-21:00** Dantzaldia

Gelatxo Orkestrarekin, Jubilatuen Biltokian.

### 4 MARTITZENA

**16:30** Mozorroen elkartzea

Kalegoen plazan.

**16:45** Kiki, koko eta moko pailazoak

*Txontada Txondal* dibertsioa eta jai ikuskizuna Kalegoen plazan. Euria egiten badu: Maalan.

**18:15** Kalejira

Mauxitxa txarangarekin kalejira, erraldoi, buruhandi eta zezenzikletekin.

**18:00-21:00** Dantzaldia

Gelatxo Orkestraren dantzaldia Jubilatuen Biltokian. Mozorro lehiaketa ere izango da eta bi sari banatuko dira ondoen mozorroturik daudenen artean.

## INAUTERIAK MENDARON

### 28 BARIXAKUA

**15:00** Jaialdia

Ikastolako umeen jaialdia

### 1 ZAPATUA

**12:30** Kalejira

Bizipoza txarangarekin kalejira

**12:30** Poteo-kalejira eta bazkaria

Mendaroko Gazte Asanbladak poteo-kalejira antolatu du. Ondoren,

Gaztetxean bazkalduko dute, eta bazkalosterako jolasak antolatu dituzte. Antolatzaileek mozorrotuta joateko eskatu dute, eta gaiak ere jarri dituzte: haurtzaroko pertsonaiak, famatuak, atzeritarrak edo zirkua.

**17:30** Txokolatada

Arno guraso elkarteak antolatuta, txokolatada, mozorro-desfilea eta diskoteka, Goñati frontoian.

**19:00** Kamel DJa

Gaztetxean.

### 4 MARTITZENA

**17:30** Zirkoaren mundua

Zirkoaren mundua, Goñati frontoian. Tailerrak, oreka jolasak, pailazoak, ohe elastikoak...

# Aingeru Goardako jaiak ospatuko dituzte Mendaron asteburu honetan

Bihar da eguna, baina etzi izango dira ekitaldi nagusiak

**B**ihar da berez Aingeru Goardakoaren eguna, baina gaur hasiko dituzte Mendaroko Plaza auzoan jaiak, arbola sartzearekin. Kanpaiak ere astinduko dituzte, jaiari hasiera emateko, baina bihar eta etzi egingo dira ekintza nagusiak. Bihar, ohi legez, bi meza izango dira: 8:00etan eta 11:00etan, eta meza nagusiaren ostean, 11:30ean, Arnoateko Igoera jokatu da. Domekan, berriz, ermita ingurura batuko dira mendarorarrak. Meza izango da 12:00etan, eta meza ostean, ohi legez, bertsolarien saioa, musika, eta herri kirol erakustaldia izango dira aukerak. Txosna ere jarriko du Aingeru Goardako jai batzordeak, eta hangoak amaitutakoan, Aizperako bidea hartuko dute aurrez izena emandakoek. Izan ere, bertso bazkaria izango da eguneko beste ekitaldi nagusia. 14:30erako jarri dute ordua, eta Iker Zubeldia eta Andoni Egaña bertsolariak girtuko dute bazkalordua.

## ‘La última oportunidad’ antzezlan, martxoaren 7an

*La última oportunidad* komedia garaikidea aurkeztuko du Glu-glu Producciones konpainiak martxoaren 7an Elgoibarko Herriko antzokian (20:30). Gurutze Beitia eta Julian lantzi telebistako aurkezle ezagunek antzeztuko dute elkar ezagutu behar ez zuten bikotearen papera. Emakumeak erabaki du ama izatea lagunduriko ernalkuntzaren bidez, eta gizona hazi-emailea da. Pasioz, dibertsioz, sedukzioz, gaizki-uletuz eta maitasunez beteriko komedia da. Sarrerak hamar euroan jarri dituzte salgai (ikasle eta gazte txarteldunentzat zazpi euroan).

## Sinuoseren inauterietako kontzertua, gaur, Sotoan

Azken hamazazpi urteotako ohiturari jarraituz, inauterietako kontzertu berezia antolatu du Sinuose kultur elkarteak gaurko. *La extraña pareja* izena jarri diote gaurkoari, eta antolatzaileek ez dute zehaztasun gehiagorik eman. Sotoan izango da, 23:00etan hasiko da, eta sarrera doan jarri dute.



## Elgoibarko 46 piano jotzailek parte hartu dute Andoingo jaialdian



Euskal Herriko eta Kantabriako 880 piano-ikaslek parte hartu zuten joan den asteburuan Andoingo bederatzigarren piano jaialdian, tartean Elgoibarko 46 ikaslek. Domina eta diploma uzta oparoarekin itzuli ziren, gainera, etxera. Estilo eta garai desberdinetako piezak jo zituzten: Bach edo Haendel konpositore klasikoek piezetatik hasi eta Marta Mier edo Pamela Wedwood musikagile garaikideek konposatutako pieza modernoagoetaraino. Baita euskal musikagileen piezak ere. Elgoibartik joandako ikasleek pieza horiek eta beste batzuk jo behar izan zituzten, bakarka zein binaka. 18 ikaslek urrezko dominak eskuratu zituzten, zilarrezkoak beste 27k eta brontzezkoak ikasle batek.

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ 602 391 899
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. Esperientzia handia. ☎ 616 457 254
- Emakumea lan bila. ☎ 690 359 554
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ 631 102 186
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ 626 052 165
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ 636 448 696
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ 680 121 252
- Emakumea umeak zaintzeko prest. Haur Hezkuntzako ikasketak ditut. ☎ 610 658 914
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientziaduna. ☎ 620 258 708
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. Gauzez ere bai. ☎ 608 886 701
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ 649 626 975
- Emakumea eskaintzen da gauzez lan egiteko. Esperientziaduna. ☎ 682 255 834
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketarako. Goizez. ☎ 617 571 210
- Emakumea eskaintzen da astelehenerik ostiralera nagusiak zaintzeko. ☎ 699 820 299
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ 620 258 708

- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Gauzez ere lan egiteko prest. ☎ 943 254 087 / 672 966 528
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Orduka, asteburuetan... Esperientziaduna. ☎ 626 914 904
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko edo nagusiak zaintzeko. Geriatria laguntzaile ikasketekin. ☎ 646 931 162
- Neska eskaintzen da garbiketa lanetarako edo ume zein nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. ☎ 616 465 940
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. Interna. Esperientzia dut, eta paperak legez. ☎ 602 384 491
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ 638 863 019
- Emakumea eskaintzen da lanerako. Esperientzia du geriatrian, umeak zaintzen, zerbitzari edo dendari lanetan. ☎ 688 901 667 / 943 530 908
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko zein sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ 697 735 046
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ 669 311 385
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo interna. ☎ 653 156 403

ESKAINZA

- Tabernari emakumezkoa behar da Elgoibarko taberna batean asteburuetan lan egiteko. Bidali CVa, argazkiarekin. [kamarera@hotmail.com](mailto:kamarera@hotmail.com)

ETXEBIZITZAK

- Pisu hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 602 391 899
- Emakumea pisu bila. Elgoibar erdigunean, ahal dela. ☎ 636 581 194
- Pisu hartuko nuke alokairuan, konpartitzeko. ☎ 602 490 595
- Etxea alokatzen dut Urazandin. ☎ 660 522 587

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Garaje itxia alokatzen dut Ikastola ondoan. ☎ 943 531 648 / 669 916 148
- Bulegoa salgai, Elgoibar erdigunean. 25m2. komuna dauka. 36.000 euro. ☎ 677 731 061

PARTIKULARRAK

- Batxilergoko lehenengo mailako ikasle bati klase partikularrak emateko pertsona behar da, bereziki, Gaztelania irakasgaia emateko. ☎ 628 413 290
- Magisteritza ikasleak klase partikularrak ematen ditu. LH eta DBH1 eta 2. maila. ☎ 634 588 605



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
 ☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**- Batzarren akta etxe-jabe guztiei edota bakarrik bileran egon direnei bidali behar zaien jakin nahiko genuke, eta baita akta posta elektronikoz bidaltzerik badagoen.**

Legeak dio etxe-jabe guztiei eman behar zaiela batzarren akta, bai bileran egon direnei eta baita egon ez direnei ere. Etxe-jabe bakoitzak horretarako eman duen helbidera bidali behar da akta. Helbiderik eman ez badu, eraikin horretan daukan etxebizitzara edo lokalera bidaliko da.

Hala ere, portaleko iragarki taulan ere jarri daiteke aktaren kopia bat, baina kasu horretan akta iragarki taula horretan jartzearen arrazoiak eta bileran onartu diren gaien zerrenda ere zehaztu beharko dira.

Gaur egunean, hala ere, gero eta sarriago erabiltzen da posta elektronikoa halakoetarako, bizkorragoa eta merkeagoa delako. Batzarren berri emateko bide hori aukeratzen baldin bada, baina, informazio hori iritsi behar duen lekura iristen dela bermatzeko neurri guztiak hartu beharko dira.

**Gomendioa: Bizilagunak eurak dira komunikazio bide hori onartu behar dutenak, alegia, aktak posta elektronikoz bidaliko direla onartuko dutenak. Batzarrak adostu badu, aktan jaso beharko da hori ere, eta kontra agertzen diren bizilagunei ohiko postaz bidali beharko zaie.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Zorionak, **Oinatz!** Kandela asko itzail genituen astelehenean el 4 patxo potolo denon partez, batez ere Nahikariren partez.



• Zorionak, **Pablo!** Atzo 9 urte egin zenituelako eta oso ondo pasa genuelako, muxuak aittitta-amamen, gurasoen eta osaben partez.



• Zorionak **etzeko printzesari** 7 urte bete dituelako. Asko maite zaitugu. Lurdes, Manuel, guraso eta aiton-amonak, eta bereziki Manexek. Patxo bat.



• Zorionak, **Jone**, igandean 9 urte beteko dituzulako. Familiakoen, eta bereziki, Sararen partez.



• Zorionak, **Paul**, bihar 3 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat etzeko guztion partez.



• Zorionak, **Haritz!** Gaur 3 urte, txapeldun! Iraultza, Oihan, Sugar eta Harrieten partez.



• Zorionak **Mendaroko politenari**, Edu, Julia eta Marimarren partez.



• Zorionak, **Naia**, atzo 7 urte egin zenituelako. Muxu handi bat, familiakoen, eta bereziki, Julen eta Ikerren partez.



• Eman 5ekoa! Eta hartu mila muxu eta zorion, **Luken**.



• Zorionak, **Jone**, zure hamargarren urtebetetzean, etzekoen, eta bereziki, Enekoren partez.



• Zorionak, **Maialen**, igandean 2 urte beteko dituzulako. Patxo bat, familiako guztion, eta bereziki, Jontxuren partez.



• Zorionak, **Ibai**, asteartean 8 urte bete zenituelako. Familiako guztion partez, muxu handi bat.




• Zorionak, **Victor**, atzo 5 urte bete zenituelako. Anaren partez, muxu handi bat.



• Zorionak, **Sunel** Oso ondo pasatu genuen zure lehenengo urtebetetzean. Patxo handi bat etzekoen, eta bereziki, Markelen partez.



• Zorionak, **Paule**, zure hirugarren urtebetetzean, eta baita ere zuri, aitabxo, 33 urte egin zenituelako. Bina pa handi, familiakoen partez.



• Zorionak, **Danel eta Ixaso!** Patxo handi bat, etzekoen partez.



## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**4'50€**

Argazki bikoitza:

**7€**

Hirukoitza:

**9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra:

**3'50€**

Argazki bikoitza:

**6€**

Hirukoitza:

**8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak:

**12€**

Argazkiak **eguztzen eguerdia (12:00etarako)**

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)

e-postara bidali.

## 28 barixakua

### Musika

23:00 Kontzertua

Inauterietako kontzertu berezia eskainiko du Sinuosek, Kultur Etxeko sotoan.

## 1 zapatua

### Informazio saioa

11:00 Ingeniaritza duala

Ingeniaritza dualeko unibertsitate eskolak informazio saioa eskainiko du. IMHn.

## 7 barixakua

### Erakusteka

18:30 Elgoibarko emakumeak eta artisautza

Kultur Etxeko erakusketa gelan jarriko dituzte ikusgai Elgoibarko emakumeek eginiko lanak, hilaren 15era arte.

### Antzerkia

20:30 'La última oportunidad'

Glu-Glu taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## ZINEA

### «La ladrona de libros»

28, barixakua: 22:15  
1, zapatua: 19:00/22:15  
2, domeka: 19:00  
3, astelehena: 21:30



### «Lluvia de albóndigas»

2, domeka: 16:30



### «Gloria»

(Ongarri zinekluba)

6, eguena: 21:30



**BOTIKA ORDUTEGIAK:** 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

### GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
28 Zabaleta 1 Barrenetxea 2 Barrenetxea 3 Ibañez 4 Garitaonandia 5 Etxeberria 6 aaaafernandez	Astelehenetik igandera  Yudego	Azkue (Eibar) Toribio Etxebarria 4 (943 202 344)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro) - Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Zabaleta** Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

Bihar makillatzaile profesionala izango da gaztelekuan 15:00etatik 18:00etara. Animatu zaitetzte!



Martxoaren 4an, asteartea, ludoteka itxita egongo da. Asteazkenean irekiko dugu betiko ordutegian

ESKERTZA

## JULIA CENDOYA ARAMENDI



*Isiltasunean izan dira  
zure lana eta bizitza,  
beti izango zara  
gure oroimenean eta bihotzean*

Familia



2014ko otsailaren 26an hil zen, 87 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.

ESKERTZA

## AMAIA ARRIZABALAGA ARAKISTAIN



*Azkarateko gain ederrean  
lainoak alderik alde  
argi polita, maitagarria  
itzali da suabe-suabe.  
Amaia, apala, eskuzabala  
goizegi egin duzu alde  
baina ez, ordea, zure bihotza  
osorik guri eman gabe.*

Zure ahizpak eta nebak

2014ko otsailaren 18an hil zen,  
44 urte zituela.



VII. URTEURRENA

## RAMON UNTZILLA ARANBERRI



*Kaixo, Ramon  
ta memorian zure irria  
ta memorian zure begiak  
ta memorian zure keinua  
ta memorian zure izatea  
ta memorian bizi zaitugu  
ta memorian zure aiduru  
ta memorian zaitugu katigu  
ta memorian zaitugu*

Etxekoak

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

Sendiak bihotzez eskertzen du urteurreneko mezetara agertu izana.





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Uleldako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea, Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Uleldako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutensea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Farmakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Okklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**MUTUAK ETA ASEGURUAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, FADI...  
**Galdetuiguazu!**

